

GORBEIA INGURUKO KONTU ZAHARRAK

Urteroko legean, ia kultura-eginbehartzat dogun bisitan, Durangoko euskal liburu eta disko azokatik neure buruari oparitxu bat eginda pozik etxeratu nintzan; liburu sorta bat aldean nebala etxeratu be.

Hareetariko bat benetan eder eta mardula, Gorbeia inguruko ipuin eta esaunden airea dakarskuna; inguru horretan, urteak joan urteak etorri, eiho eta zabaldu dan herri-jakintza, lekukoen ahotik hara fin-fin jaso eta gure letretan betiko ezarri dauan maisu baten maisu-lana.

Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak II dau izenburua. Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak argitaratu dabe elkarlanean (Iker-32) eta egilea Juan Manuel Etxebarria Ayesta da.

Erakunde bi horreetako ordezkarien agur-hitzak datoz liburuaren atarian, autorearen sarreraren aurretik, Andres Urrutiarenak Euskaltzaindiaren izenean eta Jose Antonio Rodríguez Ranz-enak Deustuko Unibertsitatearen izenean. Lehenengoaren agurretik hau azpimarratuko neuke:

“Sari askotan ahantzi eta alboratzen da euskal letretan etnolinguistikaren ekarpena. Aldi moderno honetan, hain zuzen ere, berehalako erabilgarritasuna duten horien peskizan etengabe aritzen garenean, maiz izaten dugu nondik gatozen eta zerk osatzen duen gure izate kolektiboa bazter uzteko gogo.

Horiek biltzea eta erakustea betidanik izan da Juan Manuel Etxebarriaren arduretariko bat. Ipuinak, istorioak, gertaerak,

gertalixkiak... batez ere Gorbeia ingurukoak, eroapenez eta jakituriaraz bilbatu, sailkatu eta argitaratu ditu”.

Bigarrenak historialari ikuspegitik haztatzen dau testu etnografikoan balioa. Hona harenetik apartatu dodan ataltxua:

“Ez dugu atzera begirutzen gauzak jakiteko soilik, ez gara erudizioaz ari; gutaz ari gara, gure iraganaz ari gara, gure izate kolektiboaz ari gara. *Bibotza taupadaka, memoria bizirik*. Claim horretan laburtu liteke guztia. Eta *Gorbeia inguruko etno-ipuina eta esaundak* memoria bizia da, Gorbeialdeko memoria bizia, hizkuntza, ohiturak eta mundu ikuskera oso bat biltzen dituen memoria bizia, gaurko erronkei aurre egiteko ezinbesteko dugun memoria bizia”.

Agur-hitz horreen ostean, egilearen hitzaurrea dator; labur-laburra, gogoeta argi eta finkoetan biribildua eta segidan sarrrera, irakurleari liburuaren nondik norakoaz azalpenak eta argibideak emotera datorrena. Irakurlea testuetan barrena ondo be ondo bideratzen eta gidatzen daki, esaten danaren argigarrri, adibide ugari eta ondo zehaztuak jarriz.

Edukia era bitara dator: ezkerraldean etnotestua eta esku-maldean bertsio etimologikoa. Obraren muina eta ardatza diran etnotestuez gainera, hainbat osagarri be badakar liburuak: hiztegi eta esapidez osoturiko 41 edo 42 orrialdeko atala, gaien aurkibide labur bat, lekukoen zerrenda eta zertzeladak, bibliografia eta Zeberrioko euskararen azterketa.

Ez da hau Gorbeia inguruko etno-ipuina eta esaunden lehenengo emaitza. Bai osoena eta altxor hori arakatzeko eta lantzen eginiko ahaleginik handiena, behin betikoa dirudiena. Hona autoreak berak dinoana:

“Orain aurkezten dudan nire lan honek beste bat dauka aurretik, *Gorbeia inguruko Etno-Ipuina eta Esaundak* (Labayru Ikastegia eta BBK. Bilbo, 1995) eta oraingo hau jarraipena litzateke baina askoz luzeagoa eta zabalagoa”. 1995eko libu-

ruan Gorbeialdeko 10 herritako 50 informatzaile erabili zituala dinosku, ia 200 kontaktako bilduma osoturik. Liburu barri honetarako, ostera, Gorbeialdea eta inguruko 23 herritako 102 barriemoile erabili ditu, guztira 450 etno-kontakteta bilduz. Beraz, aldea ikaragarria da. Horregaitik esan dogu inguru horretako behin betiko bilketa eta ikerketaren itxura hartzen deusadala lan honi.

Aurrera egin orduko, esan dagidan izenburuko hitz bati erreparatu deusadala lehenengo-lehenengorik: *esaundak* berbari. Ez neban ezagutzen hiztegietatik baino. Ez da bizkaieraz egiten dogunon berezko hitza. Uste dot Ataungo Maisuagandik jasoko ebalda, O.E.H.n, Jose Migel Barandiaranen hiru bat lekukotasun eta Manuel Lekuonaren bat agertzen diralako. Honetarako era-erara datorrena da; izan be, adiera nahiko zabal eta era berean zehatza dau. Ez da, hiztegi gehienetan datorrenez, soilik *esaera*; hori baino gehiago da; batez be *kontaera*, *ipuina*, *pasadizoa*, *bizikera*, *kontua* da. Hori dator liburu honetako hiztegitxuan eta, jakina, autoreak adiera horretan erabili dau. Hiztegiari oso aberats eta erabilgarri deritzat. Azkenerantz, beharbada, barriro bihurtuko naz horra, baina noan orain etno-ipuina eta esaundetara. Irakurlearentzat ulergarriago izan dadin bertsio etimologikoan jarriko ditut hitzez hitz hona aldatzen ditudan atalak.

Etnografia maite dogunoi eta R.M. Azkueren *Euskalerriren Yakintza* eta J.M. Barandiaranen hainbat testu irakurri ditugunoi ezagun egingo jakuz hemengo asko eta asko. Apartatu dodan lehenengoa bera nahiko klasikoa eta polita da.

Perutxu, laminak eta abemariak

Udako kanikula egun baten Perutxu ardietara joan zan eguna zabaldu baino leen.

Lamindao gaineko Petralandara allegatu zanean laminaz bete jakon inguru guztia eta andarik anda eroan eudeen Baltzolako kobazuloraino.

Perutxu durdiduta egoan. Oboan-oboan ei eukazan laminak alaurika eta irrintza baten.

Alangoren baten, andik kobazuloaren barruetatik lamina zaarkitu bat agertu jakon eta badinotso ba ze:

– *Nor zaitugun baino ez da?*

– *Ni, Lamindaoko eleizako sakristauaren seme txikia! Zer ba?*

– *Eleizea esan dozu?*

– *Bai, erantzun eutsan Perutxuk berbaltu eta guzti.*

– *Orduan zu kristaua zara?*

– *Ba, bai! Leenengo Komuniñoa be egin barri nago.*

– *Ba, mutil, orrexek salbatu zaitu, osterantzean geuretzat zinean betiko, zureak egin euan!*

Perutxuk bere burua libre ikusi euanean ardietara barik etxera joan zan zuzen eta dan-dana kontatu eurenear.

Aitite-amama eta gurasoek trankilizatu egin eudeen eta sustosartua joan jakonean badinotso aito(n)ak:

– *Ara Perutxu, orain kristau denporetan gagoz eta ez ikaratu kristau aurreko gaeuzko kontuekaz. Barrero pasatuko baliatzu, “Pater noster” bat errezatu eta kitu. Antzinean ollarrak asten ziran kukurrukuka egunsentiagaz batera eta iluntzean kakarraldoak edo “larrabotiko abemariak” euren rum-rum-rum otsean. Eleizak egin ziranetik kanpaiak joten deuskuez, arrikanpaiak goizean, angelusekoak eguerdian eta abemariak gauean. Bueno, kanpai klase gehiago be badaukaguz, ilkanpak, suarenak, eleizakoenak, kanpabueltakoak eta ez da-*

GORBEIA INGURUKO ETNO-IPUIN ETA ESAUNDAK II

JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

iker - 32



Universidad de
Deusto
Deustuko
Unibertsitatea



kit zenbat gebiago. Gaur galduaz doakuz, badakizu, gaur ez dago leengorik.

Berbok entzuckeran, Perutxu alimatu egin zan eta aurre-rantzean ez euan izan laminen bildurrik.

Begizkoa

(...) Zaratamoko begizkoarena, emen be egiten zan ori. Plomoa urtu sartanean eta gero ba ur barreñu batera bota eta ango figurak olango aztu antza zanak interpretatu egiten euazan eta ikusi ia begizkoa andrazkoarena ala gizon-ekoarena dan. Eta gero ba bidekurtze baten erre bear zan kunako almudea eleizaren bateko egurdiko amabiak jotzen dagozala.

Baina nik amak kontatu ez deutsun zer bat dakitsut, zera, ba ori bidekurtzean erretea gaixorik dagoan umearen kunako almudiarena. Bai, emen be erre egiten zan eta ollalumazko almuda ori errekeran, txispotsean asten zirean txir-txar-txir-txar ollaluma guztiak, zeinda, goia betean, eta ba ori pasetan zanean pentsetan eudiela ba begizkoaren parte txarreko mardarikatuok garretan doazela aidean lainoataraino eta bakean itxiten eutsoela umeari.

Nik neuk sinistu ez dot egiten baina lehenago ez egoan lez erremedio andirik olango gauzak egiten zirean eta batzutan ondo urten, alantxe bear eualako.

Begizkoaren kontakizun honek (1.19) badau beste bat antzantzekoa, liburuan geroago datorrena (2.42). *Deabrua katu baltz itxuran* dau izenburua. Baina bigarren honetan zertzelada barriak ageri dira: deabrua katu baltz itxuran handik alde egiten ikusi ebala begizkoaren kontra azti-zeregina bete eban Pantxike andreak eta umea gero, ahaleginak ahalegin, hil egin zala, baina ez begizkoagaitik, menigitisagaitik baino, medikuak esan ebanez. Izatez, kontakizun bera edo kontakizun beraren

jarraipena dala dirudi: lehenengoa, lekukoak bere emaztearen hariari helduz edo honek esan barik itzi zituan zertzeladak gehituz kontaturikoa; bigarren hau, barriz, emazte horrek, etxe haretakoak oraindik bizi ziralako, etenda itzi eban kontakizunaren jarraipena. Gainera, kasu honetan, emazte horrek berak bizi izan ebana zan; gaztetxu zala seintzain egoan etxeko umea eta berak zaintzen ebana, hartan be.

Jentilek labeko ogi eta artoak ostu

Atxinekoak esaten eudien ba ze ezin eudiela gauza onik egin orreikaz Untzetapikuko jentilokaz. Nor atomatu eurekana joaten? Esaten eudien indarra eukiela zeinda gulango eunek batera baino be gebiago euretariko batek bakarrik. Or dago Untzeteben Arriandia esaten deusagun arri endemoninoa eta, ba, ori be olango jentilen batek aidean botea ei da seguru. Eta esaten daudie Arriandiko arripe orretan urregorria da-goala. Inoz joan be egin gara ukusten baina nok mobidu a arritzarra.

Eta esaten joan niatzuna, emen Bertzutenen, beste leku batzutan moduan, zapatuetan labesua egiten zan, asterako, eta ba arean deskuidatu ezketino baten baino geiagotan faltatu be egin ziran ogi eta artook. Ez dakigu ba nor izango ete zan lapurra baina, entzutea, orreik jentilok izaten zirealazkoa. Eta orregaitik edo, ba batzuk San Juan-aratxa iminten eudien labeaurrean zein barriro ostu.

Honen ondoren datorrena be polita da, baina ez dot guztia hitzez hitz aldatuko hona, edukia labur eta neure erara baino eta tarteka bertako hitzak letra etzanaz. *Jentilkumea Santa Kurtzeko eskolara* dau izenburua.

Kontua da ze, jentilkumea Santa Kurtzeko eskolara agertu zala *bost arroako olango arribola*ATEGAZ. *Orreik bolakaz arri-bolan egiten eudien jentilak eta olangorenATEGAZ agertu zen eskolan.* Umeak beti ume-eta, harri-bola haregaz olgetako

gogoia piztu jaken, baina ahaleginak ahalegin, inork ezin zirkinik eragin. Jentilkumeak, ostera, *nora gura araxe seguru, txirikelea letxe*. Maisuak, kontizu, umeentzat arriskua zalakoan, jentil aregaz gehiago ez olgetako agindua emon eutsen zorrotz bai zorrotz. *Jentilkumeak etorteari itxi egin ei eutsan, eta bake bat, ze ezpabere deskalabruak egingo zituzan.*

San Martinen hamabi egiak deabruari

Kanteagaz asi baino leen, kontu egizu, arako antzina or Kastrejana barreneko errekan, seguru, arripausuetan errekea andi etorren eta mutilen batek maldizinoa bota ei eutsan deabrueri andixik zubia egiteko, bere neskatxiagana joateko-edo. Deabruok gainetu jakozan eta zubia egiteko plantatu be bai, seguru, baina mutilaren arimearen truke. Eta asi ei ziran zubitginen, latigoan. Eta, a mutila damutu egin ei zan eta, ba, galdu ez euan gura egin bere arimea, eta deabruari erreklamatzera; ak esan ei eutsan: “zubi au egin-akabatu baino lehenago San Martinen amabi egiak kantetan badeustazak arimea euretzako barriro”. Eta ak mutilak kantatu egin ei eutsazan amabi egiok eta, zera e, arri baten faltan lotu ei zan Kastrejanako zubia. Entzutea alan daukat eginda eta aikomenzan San Martinen amabi egiok. Amairugarrena eskatu orduan, azak emon ei eutsazan deabruari: “ez dok amairu” esanda.

Esaik bat: Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik bi: Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik iru: Iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik lau: lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik bost: Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik sei: sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik zazpi: zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik zortzi: zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik bedratzi: bedratzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik amar: amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik amaika: hamaika mila aingeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost lllagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinitadeak iru, Erro-

mako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Esaik amabi: amabi apostoluak, hamaika mila aingeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru Trinidadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak.

Mitologia aireko aurreko honeek adibidetzat nahikoa diralakoan, beste kontu serio eta barregarriak itzi nahi izan ditut azkenerako. Horreetariko lehenengoa, kontu seriotzat hartu geinkena, hau da:

Marianoren sinismena

An, Uriondon, gure auzunean, badakizu, gure gazte denporan ez egoan nora joan andirik eta domeka arrastietan tertulia itzelak egiten genduzan. Modu gutxi geunkan baina umorea ona.

Eta egun baten, Mariano zaarra be etorri jakun tartera an etxean zeinakio egon barik kurtzulu zaarra lez arrasti guztian. Mariano gizon lerdena zan, pertxa onekoa eta eleizastiku zintzoa. Ak eleizako aginduak ondo betetan euazan eta olango kontuetan koplá edo bromá gutxi beragaz.

Eta, ba, domeka arrasti orretan, gazteak badakizu, zeozeri ekin bear eta aurretik elkar artuta Marianori burlazar ekitea pentsatu eudien eta, Juan Txikerra, zelebrea zan izan be, eta axe ipini eudien iterantzunak botaten agureari eta badinotso ba ze:

– Mariano, berori beti dabil or eleizako agindu guztiak betetan jaunekobean eta ba ez deritzo larregi beti olan ibilteari? Izan beite apur bat, zera, ez beite izan ain estua pekatu mor-

tal, benial eta olangoetan. Gainera, ziur dago berori Jaungoikorik dagoan?

– Ara mutilak, –erantzun eutsoen Marianok– zuok au eta ori eta bestea esango deustazue baina kontuz gero, Jaungoikorik ez dagoelakoan bizi eta deskuidu santuren baten badago zer? Gero ez dau balio, au egin izan baneu eta olangoak esatea, gero belu be igual izango da eta obeto artez ibili betiko damutu ez egiteko. Kontuz gero e!

– Tira, tira Mariano, ez bedi txarrezean artu burlazar gabilz eta.

– Olan badok obeto, ze biotzak be eraikadea egin jaustak egin be berbok entzuckeran, errekoño, Jaungoikoari beti izan jautsat errespetoa eta ortik ez jatork kalterik, aitearen eta semearen...

Eta alan akabatu zan Mariano eta gazte bromiston arteko trebitua eta arrasti ederra emon gendun Larrea soinulariaren soinuotsagaz dantza gura dana eginda.

Oiloa ostu ezin eta pagatu egin behar

Aitorlekuko pasadizo xeble bat dozu hau. Behin, kontizu, urliak gose handia eta zer janik ez inguruan eta oilategi batera osteratxu bat egitea otu jakon. *Eta, joan be egin ei zan eta labea dagoan lekuan, (...) alanbrea apur bat apurtuta ikusi ei euan.*

Hurrengo iluntze baten artagarau batzuk hartu eta joan zan barriro. *Kukumixo paratu eta andixik alanbrazulotik artagarau batzuk bota euazan oillategira barrura, eta atoan arri-matu jakon alango oilo mardo bat artagarauak jaten. Orduan, sartu eskua alanbrazulotik eta, sast! buztaneko lumatik (g)oratu ei eutsan oiloari baina, ain egoan mardo, ezin atera eta eskuetan lumak itxita ospa egin ei eutsan ollo orrek.*

Alperreko bearrok egin eta gero, etxera joan ei zan aoan txua eginda eta ganera eskubitorra eta beso-makilea urratuta alanbreagaz.

Gero pazkoakoa bete behar eta konfesetara joan ei zan, baina ez herriko abadeagana, misiolariagana baino. Honek ea lapurretarik egin eban itaundu eutsanean, gure gizonak erantzun:

- *Ez ba jauna, gogoan daukadala ez behintzat.*
- *Intentzinorik be ez?*
- *Bueno, intentzinoa bai, baina intentzinoa bakarrik e.*

Holan eta holan oilo bat ostuteko entsegu, baina ezin izan ebala. Misiolariak esan eutsan ze, intentzinoa be pekatu zala eta haren balioa ordaindu behar ebala, elizari egindako limosna modura. Zenbat eta, kontuak eginez, ogerleko bat gitxinez izan beharko ebala.

Eta, seguru, ez ei eukan beste erremediorik eta ogerlekoa boltsatik ateraten dagoala, esan ei euan berekitan: “oraintxe neurtuko joat au misiolari zeken au” eta non dinotson:

– *Bueno ba jauna, absolutzinorako derrigorra bada, beitso ogerleko au eta santaspaskuas.*

Eta zer egin eban? Misiolariari eskura emon beharrean, andraskoak autortzeko dagoan saretxutik eskaini ei eutsan, esanaz:

– *Beitso, beitso intentzinoaren pagua, eta egin bei berorrek gura dauana.*

– *Baina, ortik ez gizona, andren errejillatik gura eta be ezin joat artu, emoistak eskura emetik aurretik ara.*

– *A? Ezin dauala artu ogerlekoa? Ba, ni neu be olantxik ibili naz ollogaz eta intentzinoagaz lotu naz.*

Barazar ganeko kaminerua

Gure aita, jakingo dozu, kaminerua izan zan, deitu be olantxik egiten eutsoen, “Sarasolako Kaminerua” eta ba baten kontatu euskun ba ze an Barazar ganean ei egoan kamineru bat atxurragaz kamino bazterrak atontan. Kamineru horrek ez ei ekien erderarik eta erdeldunekaz aituteko euren sobrestanteari deitu bear izaten eutsan, badakizu ba sobrestanteak erdereza jakin bear izaten euan Diputazinora-eta joaten zanean parteak eskribiduta emoteko.

Eta ba egun baten gasogenozko auto bat paratu ei jakon Barazar ganean eta badinotso, erderaz, klaro.

– Buenos días, por favor puede decirme si voy bien para Villarreal?

– Oño! –erantzun ei eutsan–, nik iri milla erreal zor?

– Sí, –beste orrek–, sí, Villarreal de Alava.

– Milla erreal eta alabea?

Orduan kamineru orrek artzean dau atxurra eta atxurkazu bat emoteko ditean plantetan jako, eta orretara badinotso autoko gizonak esku biekaz burua gordeta:

– Pero escuche usted, escuche...

– ¡Eskutsik gura dok? Ba orduan eskutsik artuko dozak artzekoak!

Joan ei zan joten baina autodun orrek autoa arrankatu eta aurrera egin ei euan, osterantzean joten dau gero!

Pasadizo honek nahiko zabaldua izan behar dau. Liburu honetan bertan be, beste bertsio bat dau, aurreko honen antzantzekoa, baina Ubideko lekuko batek kontatua. “*Villarreal esan eta millaerreal ulertu*” dau izenburua. Eta nik neuk be umetan Meñakabarrenan entzuna neban; Afrikako Malawin urte askoan misiolari izan zan eta orain Corellako karmeldarren nagusi dan Sabino Goikoleak bizi eta grazia handiaz

ekian kontatzen umetan. Baina bertsio honen amaiera bigunagoa da; gure gizona apur bat harrituta eta berdatuta bai egongo zan, baina atxurraz edo esku-hutsik eginiko zemairik ez da inondik ageri. Negua zan, Gabonaldia-edo. Holan itaundu ei eutsan kanpotar horrek:

– *¿Por dónde se va a Villarreal de Álava?*

– *Neuk zuri alabea eta mila erreal zor? –gure gizonak.*

– *¿Qué dices, qué dices? –kanpotarrak.*

Eta gure gizonak: – Kerizek? Gabonetan kerizek? Bai barrabasetan...

Beste begirada bat hiztegiari

Oboan: inguruan, bueltan, ingurumarian (círculo, esfera ik. O.E.H.); *oboan-oboan ei eukazan laminak alaurika eta irrintza baten*. Kasu askotan Arratia aldekoa eta Txorierra eta Mungia aldekoa antzekoak izaten dira, batez be hiztegiari jagokonez, baina guretzat “oboan”, “oboan-oboan” ezezaguna da; ez, ostera, “obuan”, “obuan-obuan”, hau eguneroko hitza da-eta. *Kili-kolo, dana beharrean* esan nahi dau (balanceándose, a duras penas ik. O.E.H.). Gure ama zanak urte asko hartu zituan eta zahartzaroan zelan ebilen itaundu ezkerro, “obu-obuen” ebilela erantzuten eban, eta sarriago “obutxuen” ebilela.

Arrikanpaiak: egunsentian jotzen diren eliza-kanpaiak, argihastekoak. Hori dator liburu honetako hiztegitxoan. Ez dator O.E.H.n. Burura etorri jat ez ete dan izango “argi-kanpai” hitzaren aldaera-edo.

Atomatu: ausartu, atrebitu; *Nor atomatu eurekana joaten?* Ez neban ezagutzen; badator O.E.H.n; adiera bi ditu: 1 acometer, atacar. 2 atreverse.

Endemoninoa: handia, oso handia; *or dago Untzeteben Arriandia esaten deitsagun arri endemoninoa*. Ez dator O.E.H.n.

Zeinakio: zer egin ez dakiala, ezer egin barik; *Mariano zaarra be etorri jakun tartera an etxean zeinakio egon barik kurtzulu zaarra lez arrasti guztian*. Polita da, esaldi batetik sorturiko hitza. Markina-Xemeinen sarri entzun dot; *zerinakio* esaten da hemen; *hor zerinakio egon beharrean zatoz gu-gaz...*

Beitso: har beza berorrek (berorika bizkaieraz); *beitso, beitso intentzinoaren pagua, eta egin bei berorrek gura dauana*.

Berbaltua: toteltasuna, tartamutua danaren akatsa; *bai, erantzun eutsan Perutxuk berbaltu eta guzti*. Meñakan be ohiko hitza eta forma da.

Sustosartua: aurreko sustoen eragina kendu barik; *aitite-amama eta gurasoek trankilizatu egin eudeen eta sustosartua joan jakonean badinotso aito(n)ak*.

Aurgora: aldats gora, aldapa gora, aldatsa. “Aurbehera” bizkaieraz zabal dabilen hitza da, baina “aurgora” ez hainbeste.

Azken pausoak

Gorbeia aldeko ibilaldi atsegin honen azken pausoak emoten dihardugu. Jaki gozoak batu ditugu, berez-berezkoak, basoko fruitu osasungarriak, herri-herrikoak, bertokoak. Internet aurreko herri euskaldunaren emaitza, haren pentsamenduaren, mundu-ikuskeraren emaitza naturala, oraindik garbia, kutsatu bakoa. Jaki hau esku-eskura izan dot 788 orrialdeko liburu apain eta ondo hornituan barrena. Nik, hain aukera handitik, gutxi batzuk apartatu eta zuri eskaini nahi izan deutsudaz, irakurle, eta bide batez, ibilaldi honetako azken pausoak emotean, bilketa bikain hau egin dauana aupatu eta txalotu.

Luis Baraiazarra Txertudi